

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatu Nagusiaren 265/2016 Foru Dekretua, abuztuaren 26koa, zeinaren bidez onartzen baita María Dolores Suárez Rodríguez andrea Zigoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanposturako izendatzea halabeharrazatik, abuztuaren 22tik aurrera eta lanpostuaren titularra itzuli arte

Zigoitiko Udalak jakinarazi dio atal honi ez daukala nor jardun idazkari-kontuhartzaile lanpostuan, zeren lanpostuaren titularra zerbitzurako aldi baterako ezintasun egoeran baitago, eta, beraz, norbait halabeharrez izendatu beharra baitauka lanpostu hori betetzeko 2016ko abuztuaren 22tik lanpostuaren titularra itzuli arte.

Horregatik guztiagatik, proposatzen du María Dolores Suárez Rodríguez andrearen halabeharrezko izendapena egitea; hark Administrazio Orokorreko Teknikariaren lanpostua betetzen du udal horretan.

Bat etorritz 1732/1994 Errege Dekretuaren 33. artikuluan xedatutakoarekin (uztailaren 29koa, Gaikuntza nazionalerako toki administrazioaren funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoa, beste errege dekretu honek emandako idazkeraren arabera: 834/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa).

Kontuan hartuz Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko Legearen 25. artikuluan xedatutakoa — 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, zeinak aldatu egiten baitu 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena, 92.bis artikulua berria sartuz; artikulua berri horretan, toki korporazioetan langileak halabeharrez aldi baterako izendatu behar direnerako eskumen esparrua zehazten da.

Horregatik guztiagatik, 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua esleitzen dizkidan ahalmenak erabiliz (52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa), diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekoaren Saileko foru diputatua kanpoan dagoenez, ebazpen hau foru dekretuz eman beharra dago, haren eginkizunak hartuta neure gain,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Dolores Suárez Rodríguez andrearen aldeko halabeharrezko izendapena egitea Zigoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzailearen lanpostua betetzeko 2016ko abuztuaren 22tik aurrera, plazaren titularra den pertsona zerbitzurako aldi baterako ezintasunagatik mediku bajaz egongo den aldirako.

Bigarrena. Izendapenak titularra Zigoitiko Udaleko idazkari-kontuhartzailearen lanpostura itzuli arteko indarra izango du.

Hirugarrena. Foru Dekretu hau jakinaraztea interesdunei, Zigoitiko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioarekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Gasteiz, 2016ko abuztuaren 26a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE
Lurralde Oreka zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ